



**BIDAIA-AGENTZIEI BURUZKO MAIATZAREN 22KO 81/2012
DEKRETUAREKIN (BIDAIA-AGENTZIEN DEKRETUA BIGARRENEZ
ALDATZEN DUEN UZTAILAREN 22KO 97/2022 DEKRETUAK EGINDAKO
ALDAKETAREN ONDOREN) LOTUTAKO OHIKO GALDERAK**

1.- Noiz argitaratu da dekretua?

Bidaia-agentziei buruzko maiatzaren 22ko 81/2012 Dekretua 2012ko ekainaren 6an argitaratu zen berez (EHAA, 110. zk.).

Bi aldaketa izan ditu: lehenengoa, Bidaia-agentziei buruzko Dekretua aldatzeko den apirilaren 16ko 202/2013 Dekretuaren bitartez, eta, bigarrena, Bidaia-agentziei buruzko Dekretua bigarrenez aldatzen duen uztailaren 26ko 97/2022 Dekretuaren bitartez.

2.- Zeintzuk dira Bidaia-agentziei buruzko Dekretua aldatzeko den apirilaren 16ko 202/2013 Dekretuak eginiko aldaketa nagusiak?

Aldaketa hori honako honi zor zaio: abuztuaren 25eko 2488/1978 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, Turismoko Idazkaritza Nagusiak emandako tituluak-lizentziak baimendutako bidaia-agentziek orain erantzukizunpeko adierazpenik aurkeztu behar ez izateko eta izaera horri eusteko araubide iragankorra ezartzeko beharri.

Halaber, aldaketa horren bidez, Dekretuaren 4. artikuluan 3. apartatuan abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuari (Administrazio-prozeduran bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoen erabilera arautzen duena) egiten zitzaion aipamena ordezkaturiko da, eta, horren ordez, otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua (Administrazio Elektronikoari buruzkoa) aipaturiko da, aurrekoa indargabetzen duena.

3.- Zeintzuk dira Bidaia-agentziei buruzko Dekretua bigarrenez aldatzeko den uztailaren 26ko 97/2022 Dekretuak eginiko aldaketak?

Onartutako aldaketak dakartzan berrikuntza nagusiak hauek dira:

- **Turismo-administrazioarekiko harremana telematikoa izatea bakarrik.** Turismo-administrazioarekin harreman telematikoa izateko betebeharra, bidaia-agentziek (Bidaia-agentziei buruzko maiatzaren 22ko 81/2012 Dekretuaren 4.3 artikulua; aurrerantzean, 81/2012 Dekretua) eta lotutako bidaia-zerbitzuak kontratatzea errazten duten bitartekaritzako gainerako turismo-enpresek (81/2012 Dekretuaren Lehenengo Xedapen Gehigarriaren 3. apartatua) administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko.
- **Dekretuaren 6. artikuluko «fidantza» terminoa aldatzea, eta, haren ordez, «kaudimengabeziaren aurkako bermea» erabiltzea.** Dekretu autonomikoaren nomenklatura KELOTBekora egokitzeko egin da aldaketa hori.
- **Bermearen zenbatekoaren kalkulu berria.** 81/2012 Dekretuaren 6.3.a artikuluekin bat, jardueraren lehenengo urtean, bermeak, **gutxienez, 100.000 euroko zenbatekoa hartu behar du bere gain.** Jardueraren bigarren urtetik aurrera, bermearen zenbatekoak, **gutxienez, bidaia-agentziak aurreko ekitaldian bidaia konbinatuen edo lotutako bidaia-zerbitzuen salmentagatiko diru-**

sarreretatik lortutako negozio-bolumenaren % 5aren baliokidea izan beharko du, eta, edonola ere, zenbatekoa ez da izango 100.000 eurotik beherakoa.

Arriskuak areagotzen badira, estaldura egokitu egin beharko da, batez ere bidaia konbinatuen salmentek oso gora egiten badute.

Aipatutako 6.3 artikulua b) eta c) apartatuek beste aukera batzuk ematen dituzte aseguramendurako, baldin eta gutxienez ehun mila euroko zenbatekoa mantentzen bada.

Bidaia konbinatuetan eta lotutako bidaia-zerbitzuetan eginiko salmenten arteko baliokidetasunaren betebeharren ondorioz, salmenta horiek urtero aitortu behar dira, eta, beraz, bermatutako zenbatekoa urtero egokitu behar da.

- **Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian bermea eratzeko betebeharra kentzea.** Aldatutako 81/2012 Dekretuaren 6. artikulua arabera, dagoeneko ez da kaudimengabeziari aurre egiteko bermerik eratu behar Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren aurrean. Euskadin ezarritako bitartekaritzako turismo-enpresa baten kaudimengabeziak eragin diezaieketen bidaiariak bidaia-agentziarekin edo lotutako bidaia-zerbitzuen kontratazioa errazten duen enpresaburuarekin jarri beharko dute harremanetan, edo, zuzenean, erakunde bermatzailearekin, bermea aktibatzeke.

Nabarmenezkoa da, KELOTBren 155.2.c) artikulua arabera, bidaia konbinatuak merkaturatzen dituzten edo lotutako bidaia-zerbitzuak kontratatzea errazten duten bitartekaritzako turismo-enpresek, besteak beste, honako hauek jakinarazi beharko dizkietela bidaiariei: kaudimengabeziaren kasuan, erakunde bermatzailearen izena, bidaia konbinatuaren kontratua betetzen dela bermatzeko erakundearen izena, eta harremanetarako datuak, helbide osoa barne, laburpen-dokumentu edo ziurtagiri batean, eta, hala badagokio, xede horretarako izendatutako agintaritza eskudunaren izena eta harremanetarako datuak. Halaber, Dekretuaren 6.5 artikulua arabera, bidaiariak bidaia konbinatuaren edo lotutako bidaia-zerbitzuen lehenengo konturako ordainketa egiten duenean, bidaia-agentziak [edo lotutako bidaia-zerbitzuak errazten dituen enpresaburuak, Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren lehenengo apartatuaren arabera] ziurtagiri bat emango dio. Kaudimengabeziaren kasuan, ziurtagiri horrek egiaztatzen du bidaiariak eskubidea duela erakunde bermatzaileari zuzenean erreklamatzeko, baita erakunde bermatzailearen izena eta harremanetarako datuak ere.

- **Lotutako bidaia-zerbitzuak emateko zerbitzua emateko betebeharrak erregulatzea.** Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onesten duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuak (KELOTB), 151.1.e) artikuluan, definitzen ditu lotutako bidaia-zerbitzuak. Aldatutako 81/2012 Dekretuak ezartzen ditu, Bigarren Xedapen Gehigarrian, kaudimengabeziari aurre egiteko bermeari eta erantzukizun zibileko aseguruari buruzko betebeharrak, bitartekaritzako turismo-enpresen titularrak diren eta lotutako bidaia-zerbitzu horien kontratazioa errazten duten enpresaburuek bete behar dituztenak.
- **ETEJEn aurrez inskribatutako ostatu-arloko turismo-enpresek emandako lotutako bidaia-zerbitzuak.** Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren

Erregistroan inskribatuta dauden ostatu-enpresaburu turistikoak, baldin eta lotutako bidaia-zerbitzuak eskaintzen badituzte eta gutxienez zerbitzu-konbinazioan sartutako bidaia-zerbitzuetako bat ematen badute, erantzukizun zibileko aseguruia kontratatzeke betebeharretik salbuetsita geratuko dira, 81/2012 Dekretuaren 7. artikularekin bat. Hala ere, aplikatu beharreko turismo-araudian ezarritako erantzukizun zibileko aseguruia indarrean dutela egiaztatu beharko dute. Bidaia-zerbitzurik ematen ez duten lotutako bidaia-zerbitzuak emateko bitartekaritza egiten badute, aipatutako KELOTBren 151.1.a) artikuluan jasotako definizioaren arabera, jarduera hori egin baino lehen, bitartekaritzako turismo-enpresa gisa jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute. Adierazpen horretan, jarduera hori gauzatzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztela adieraziko dituzte.

4.- Zein da bidaia konbinatuaren definizioa?

Bidaia konbinatuaren kontzeptua [1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren](#) (azaroaren 16koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onesten dituen) 151.1.b) artikuluan ezartzen da.

Geroxeago adierazitako elementuetatik gutxienez bi elementu (bidaia-zerbitzuak, KELOTBren 151.1.a) artikuluan definituak) konbinatuz aurretik lortzen dena da, prezio globala ezarrita salduz edo eskainiz, baldin eta eskainitako prestazio horrek 24 orduetik gorako iraupena badu edo gutxienez gau bateko egonaldia hartzen badu. Elementu hauek konbinatzen dira:

1. Bidaiariak garraiatzea.
2. Ostatu ematea, bidaiarien garraioaren parte izan gabe eta bizileku-xederik gabe.
3. Autoak, beste motordun beste ibilgailu batzuk eta motozikletak alokatzea, A kategoriako gidabaimena behar dutenak.
4. Aurreko hiru zenbakietan definitutako bidaia-zerbitzuen parte ez den beste edozein turismo-zerbitzu.

Ez da bidaia konbinatutzat hartuko aurreko 4. apartatuan adierazitako turismo-zerbitzuek konbinazioaren balioaren ehuneko hogeita bosteko edo gehiagoko proportzioa hartzen ez badute, eta ez badira iragartzen edo ez badira beste arrazoiren batengatik konbinazioaren funtsezko ezaugarri bat, edo arestian aipatutako apartatuetan jasotako bidaia-zerbitzu bat gauzatzen hasi ondoren bakarrik aukeratu eta kontratatu badira.

5.- Zein da lotutako bidaia-zerbitzuen definizioa?

Lotutako bidaia-zerbitzuen kontzeptua [KELOTBren](#) 151.1.e) artikuluan ezartzen da. Kontzeptu hori [23/2018 Errege Lege Dekretuak \(abendua 21ekoa, Marken, trenbideko garraioaren eta bidaia konbinatuaren eta lotutako bidaia-zerbitzuen arloko zuzentarauen transposizioa egitekoa\)](#) egindako aldaketaren bitartez sartu zen. Errege lege-dekretu horrek estatuko oinarrizko araudira ekarri zuen [Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/2366\(EB\) Zuzentaraua \(2015eko azaroaren 25ekoa, Barne-merkatuko ordainketa-zerbitzuei buruzkoa; zuzentarau horrek 2002/65/EE, 2009/110/EE eta](#)

[2013/36/EB zuzentarauak eta 1093/2010 \(EB\) Erregelamendua aldatzen ditu, eta indarrik gabe uzten du 2007/64/EE Zuzentaraua\).](#)

Hori horrela, lotutako bidaia-zerbitzuak honela definitzen dira: bidaia edo oporraldi bererako erositako bidaia-zerbitzuak, bi motatakoak badira gutxienez, eta, bidaia konbinaturik osatu gabe, bide ematen badute kontratu bana egiteko bidaia-zerbitzuen emailleekin, eta, gainera, enpresaburu batek ahalbidetzen badu:

1. bere salmenta-puntura bisita bakarra edo harekin kontaktu bakarra eginda, bidaiariak bidaia-zerbitzu bakoitza hautatzea eta bereiz ordaintzea, edo
2. modu espezifikoan, beste enpresaburu batekin kontratatzea bidaia-zerbitzu gehigarriren bat, lehenengo bidaia-zerbitzuaren erreserba berresten denetik hogeita lau ordu igaro baino lehen, betiere.

Ez da bidaia konbinatuztat hartuko agiri honetako 4. galderako 4. apartatuan adierazitako bidaia-zerbitzuek konbinazioaren balioaren ehuneko hogeita bosteko edo gehiagoko proportzioa hartzen ez badute, eta ez badira iragartzen edo ez badira beste arrazoiren batengatik konbinazioaren funtsezko ezaugarri bat, edo arestian aipatutako apartatuetan jasotako bidaia-zerbitzu bat gauzatzen hasi ondoren bakarrik aukeratu eta kontratatu badira.

6.- Edonork antolatu edo merkaturatu al ditzake bidaia konbinatuak edo edonork erraztu al dezake lotutako bidaia-zerbitzuak kontratatzea?

Dekretuaren 10. artikulua eta TLren 56. artikulua arabera, bidaia konbinatuen antolakuntza eta merkaturatzea bidaia-agentziei dagokie soilik.

Halaber, eta TLren 18. artikuluekin bat, lotutako bidaia-zerbitzuen kontratazioa erraztu nahi duten bitartekaritzako turismo-enpresek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute jarduera hori hasi aurretik.

Lotutako bidaia-zerbitzuen kontratazioa erraztu dezaketen bitartekaritzako turismo-enpresak mota hauetakoak izan daitezke:

- Bidaia-agentziak
- Erreserba-zentralak
- Turismo-bitartekariak (ez nahasi tipologia guztiak hartzen dituzten bitartekaritzako turismo-enpresekin)
- Bidaia-agentzia handizkariak.

Arestian aipatutako moduan, eta TLren 18. artikuluekin bat etorruta, Euskadiko Turismo Administrazioaren aurrean, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute Euskadin turismo-bitartekaritzako jarduera hasi aurretik, hasiko den bitartekaritzako turismo-enpresaren tipologia.

Zerbitzuen konbinazioan sartutako bidaia-zerbitzuetako bat ematen duten ostatuek lotutako bidaia-zerbitzuen kontratazioa erraztea.

Halaber, eta alde batera utzi gabe, 81/2012 Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriak ezartzen du turismo-ostatuko euskal turismo-enpresek (eta, turismo-gidarien jarduera arautzen duen dekretua onartu ondoren, jarduera hori garatzen duten pertsonak edo enpresak), baldin eta ostatu-zerbitzua emanez (edo etorkizunean, turismo-gidaritzako

zerbitzua) lotutako bidaia-zerbitzuen konbinazioan esku hartzen badute, lotutako bidaia-zerbitzuen erraztaile gisa jardun dezaketela; betiere, jarduera horri ekin aurretik kaudimengabeziari aurre egiteko bermea eratu eta bitartekariak ez diren turismo-enpresek bermeak eratzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu badute Euskadiko Turismo Administrazioaren aurrean eta dagokien ostatu-tipologiaren arabera kontratatutako erantzukizun zibileko aseguruia indarrean dutela ziurtatzen badute.

Kanpoan uztekoak

Nabarmendu behar da 97/2022 Dekretuak (KELOTBren oinarrizko araudiak ezarritakoaren arabera) Dekretuan eginiko aldaketak Hirugarren Xedapen Gehigarri bat sartzen diola 81/2012 Dekretuari. Xedapen gehigarri horren bidez, dekretu horretan aurreikusitako betebeharretatik kanpo uzten dira pertsona juridiko pribatuek noizean behin ematen dituzten bidaia-zerbitzu konbinatuak eta lotutako bidaia-zerbitzuak –urte berean errepikatu gabe eta irabazi-asmorik gabe–, baldin eta antolatzen dituen erakundeko kideentzat soilik badira eta ez publiko orokorrarentzat, eta publizitate-bitartekorik erabiltzen ez bada; bidaiariari entregatzen zaien bidaia-dokumentazioan berariaz emango zaie salbuespen horren berri.

7.- Dagoeneko eraturako berme bat aldatzen bada, ba al dago eskakizunik hura aldatzeko orduan?

81/2012 Dekretuaren 6.10 artikulua ezartzen du bidaia-agentzia bat itxiz gero, eraturako bermearen indarraldiari eutsi beharko zaiola inskripzioa ezeztatzeko espedientearen ebazpena administrazio-bidean irimo bihurtzen denetik urtebete igaro arte.

Bermea aldatuz gero bermea aldatzeagatik edo bermearen hartzailea aldatzeagatik (bidaia-agentziaren jardueraren titularraren enpresa), agentziak aurretiaz eraturako bermea berreskuratu nahi badu haren indarraldia amaitu eta urtebete igaro baino lehen, berme berriak berariaz adierazi beharko du bermaturako bidaia-agentziak egindako bidaia konbinatuen kontratuak finkatuta geratzen direla, besteak beste aurretik aurkeztutako bermearen indarraldia amaitu baino urtebete lehenagora arte egindakoak, turismo-erabiltzailea babesgabe ez geratzeko, abalaren edo kauzio-aseguruaren kontratua sinatu aurretik egindako bidaia konbinatuen kontratuak berariaz ez finkatzea ekarriko bailuke.

8.- Legez eraturako bidaia-agentzia baten bidaia-agentzia frankiziaduna banaiz, dagokion abala eratu eta etengabe indarrean eduki behar al dut?

BAI: bi enpresa independentek frankizia osatzen duen enpresa-lankidetzako sistema hori hitzartzeak ez du eragozten, enpresek, gainera, bidaia-agentziak arautzen dituzten xedapenak bete behar izatea; hortaz, xedapen horien arabera, **bi enpresek dagokion titulua-lizentzia izan behar dute (edo, 81/2012 Dekretua onartu ondoren, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar dute), bidaia-agentzien jarduera gauzatzeko gaitzen dituen, eta bidaia-agentziei buruzko beste xedapen batzuk ere bete behar dituzte (finantza-erregimena, aseguruak, etab.).**

Enpresa frankizia-emaileak soilik baldin badu baimena edo aurkeztu badu dagokion erantzukizunpeko adierazpena turismo-administrazioaren aurrean, enpresa frankiziadunak ez lituzke beteko turismo-arauditik eratorritako betebeharrak, jarduera bat gauzatuko bailuke alde zuzeneko baimena (titulua-lizentzia) edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko betebeharra bete gabe.

Era berean, ezin da onartu enpresa frankiziadun batek garatutako jardueran enpresa horrek enpresa frankizia-emailearen sukurtsal gisa jardutea, baldin eta enpresa frankizia-emaileak ez badu aurkeztu bidaia-agentzia frankizia-emailearen sukurtsal gisa jarduteko hasierako jakinarazpena. Titulu-lizentziak (edo aipatutako erantzukizunpeko adierazpenaren aurkezpenak) bidaia-agentzien jarduera gauzatzeko gaitzen du enpresa hori; bulego nagusiaren bidez jardun dezake, baina baita sukurtsal eta salmenta-puntuen bitartez ere. Alabaina, hain zuzen ere, titulu-lizentziaren titularra den enpresaren jardueraz ari gara (edo, hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu duen enpresarenaz), hau da, enpresa frankizia-emailearenaz eta ez beste enpresa independente edo frankiziadun baten jardueraz.

Labur esateko, ez litzateke zuzenbidearen arabera izango enpresa independente batek eta titulua-lizentzia duena edo jarduera hasteko nahitaezko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu duena ez den batek jarduera gauzatea frankiziadun erregimenean.

9.- Lizentzia duen bidaia-agentzia batek laga al diezaioke bere lizentzia beste enpresa bati bi aldean artean ezarritako zenbateko edo kanon bat ordaintzearen truke?

EZ: Enpresa eskualdatzen bada, eta, ondorioz, azken batean, titulartasuna aldatzen bada, alde zuzenetik inguruabar hori adierazten duen beste erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko da. Horrela, turismo-administrazioak titular berriaren adierazpena izango du alde zuzenetik. Adierazpen horretan adieraziko du jarduera gauzatzeko aplikatu beharreko araudiak eskatzen dituen betekizun guztiak betetzen dituela, dagokion dokumentazioa duela eta jarduera gauzatzen duen bitartean baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen duela. Hau da, **titular berriak betebeharrak espezifiko hauek bete beharko ditu: kaudimengabeziari aurre egiteko bermea, erantzukizun zibileko aseguruia eta turismo-araudiak eskatzen dizkion gainerako betebeharrak.**

Gogoan izan behar da titulartasunari buruz edo taldeari (handizkaria, txikizkaria, mistoa), finantzei edo eska daitezkeen aseguruiei buruz adierazitako betebeharrak aldatuz gero, era berean, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar dela alde zuzenetik. (Dekretuaren 5.1 artikulua).

10.- Jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena soilik aurkeztu behar al da?

Edozein turismo-jardueraren hasiera turismo-administrazioan aitortu behar da dagokion erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, baina ez eskusiboki eta bakarrik Turismoaren

aurrean, jarduerari eragiten dioten alderdiren batean eskumena izan dezaketen beste administrazio batzuen aurrean ere bai (hirigintza, fiskalitatea, segurtasuna, etab.).

Turismoari dagokionez, adierazpena egiteko, jarduera hasteko nahitaezko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da (Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 18. eta 20. artikulua eta 81/2012 Dekretuaren 4. artikulua), behar bezala betetako eredu normalizatua modu telematikoan bakarrik aurkeztuz Euskadiko Turismo Administrazioan. Halaber, kontuan izan behar da eredu normalizatu horretan alde aurretik egin beharreko kudeaketak aipatzen direla, hala nola fidantza eratzea, erantzukizun zibilaren poliza kontratatzea, eta abar. Nolanahi ere, aipatutako erantzukizunpeko adierazpenean, sinatzaileak *BERE ERANTZUKIZUNPEAN adierazten du administrazio eta erakunde publikoek eska ditzaketen nahitaezko baimen eta lizentziak badituela eta hori horrela dela egiaztatzeko agiriak badituela.*

11.- “Hartzaile” gisa soilik jarduten duen txikizkari batek sal al ditzake atzerriko beste bidaia-agentzia batzuen bidaia konbinatuak?

EZ: Dekretu arautzailearen 3. artikuluan jasotako bidaia-agentzien taldeen definizioaren arabera, beste agentzia txikizkari batzuei bidaia konbinatuak proiektatu, egin, antolatu eta/edo saltzea, agentzia horiek atzerrian egon arren, “handizkari” gisa sailkatutako bidaia-agentzien eta “handizkari-txikizkarien” jarduera espezifikoa da.

Euskadin errotutako bidaia-agentzia txikizkari batek beste bidaia-agentzia bati bidaia konbinatuak saltzea arau-hauste larria izango litzateke, agentzia horren helbidea zein den gorabehera. Arau-hauste hori Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 94.1 artikuluan dago deskribatuta, eta 10.001 €-tik 100.000 €-ra bitarteko isuna izango luke, aipatutako arauaren 100.1.b) artikulua arabera.

12.- Estatuan legez eraturako bidaia-agentzia batek Euskal Autonomia Erkidegoan sukurtsal bat irekiko duela adierazi edo jakinarazi behar al du?

Bidaia agentziei buruzko maiatzaren 22ko 81/2012 Dekretuak, 8.1 artikuluan, honela dio: *“Beste autonomia-erkidego batzuetan helbideratuta egonik bertan legez diharduten bidaia-agentziek askatasun osoa dute Euskal Autonomia Erkidegoan sukurtsalak eta saltokiak ezartzeko eta bertan jarduerari hasiera emateko, dekretu honen 4. artikuluan aipaturiko erantzukizun-aitorpena zertan aurkeztu gabe”.*

Horrek ez du salbuesten bidaia-agentzia horrek bulego nagusia duen autonomia-erkidegoko legediak ezartzen dituen betebeharrak bete behar izatetik; izan ere, haren araudiak ezar dezake irekiera hori jakinarazteko edo erantzukizunpean adierazteko betebeharra.

Halaber, azpimarratu behar da Euskadiko Turismo Administrazioari jakinarazi beharko diotela estatuko bidaia-agentzien sukurtsalak edo salmenta-puntuak irekiko dituztela Euskadin, baita horietan izandako aldaketak ere. Irekiera horiek eta jakinarazpenetan

jasotako datuak ofizioz inskribatuko dira Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan (ETEJE).

13.- Bulego nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan duen bidaia-agentzia batek jakinarazi behar al du sukurtsal bat irekiko duela beste autonomia-erkidego batean edo EBko beste estatu batean?

Bai. Bidaia agentziei buruzko maiatzaren 22ko 81/2012 Dekretuak, 5.3 artikuluan, honela dio: «*Sukurtsal eta saltoki berrien irekiera eta itxiera (betiere horrek aurretiaz eraturiko fidantzak eraginpean hartzen ez baditu) eta aurkezturiko erantzukizun-aitorpenaren barnean hartuta egonik artikuluko honen aurreko apartatuaren berdinak ez diren datuen eta adierazpenen beste edozein aldaketa turismo-alorrean eskuduna den Zuzendaritzan jakinarazi beharko da aldaketa gauzatu eta hilabeteko denbora-tartean*». Hortaz, sukurtsal berriak eraturako bermearen zenbatekoa aldatzea eragiten badu, jakinarazpen baten ordeztu, titularrak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du adierazitako aldaketa egin baino lehen, funtsezko aldaketa baita, eraturako bermeari eragiten diolako, arestian aipaturako 81/2012 Dekretuaren 4.6 artikuluko ezartzen duen moduan.

Artikulu horiek betetzeaz gainera, enpresa titularrak bete egin beharko du sukurtsal berria dagoen EBko estatuak edo autonomia-erkidegoak bidaia-agentzien sukurtsalak irekitzeari buruz agindutakoa.

Ohar garrantzitsua

Informazio hau orientagarria da soilik, eta, beraz, ez ditu ez ordeztzen ez aldatzen hainbat administrazio-prozedura arautzen dituzten xedapenak, eta, ondorioz, ez du sorraraziko berariazko araudian jasota ez dagoen eskubiderik edo betebeharririk.

Azken eguneratzea

2022ko abendua